

Bilboko Deusto Business Schooleko taldeak L'ORÉAL Brandstorm 2011 marketineko lehiaketaren 19. edizioa irabazi du eta Pariseko Nazioarteko Finalean parte hartu du

Bilboko campuseko Deusto Business Schooleko taldeak 2011ko L'ORÉAL Brandstorm marketineko lehiaketaren nazioarteko finalean parte hartu zuen, Parisen, ekainaren 15ean eta 16an, estatuko faseko lehiaketaren 19. edizioan 210 ikasle espainiarrekin lehiatu ondoren. Deustuko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko taldea laugarren aldiz iritsi da nazioarteko finalera. L'ORÉAL Brandstorm 2011 estrategia joko bat da, marketina interesatzen zaien karrerako azken edo azken aurreko ikasturtea egiten diharduten unibertsitateko ikasleei zuzendua. Aurten, hasierako 70 taldetatik, 7 unibertsitateko 24 ikasle aukeratu zituzten euren proposamenak egiteko eta L'Oréal Professionnel markarako gizonentzako produktuen sail berri bat merkaturatzeko, baita komunikazio



L'Oreal Saria irabazi duten ikasleak

kanpaina prestatzeko ere. XIX. edizio horretan zortzi taldek hartu dute parte —bakoitza hiru pertsonakoa—, L'Oréal Españolañ lankidetzat estua duen unibertsitate eta negozio eskoletakoak: ESADE, ICADE, DEUSTO Bilbao, ESCP EUROPE, DEUSTO Donostia, Carlos

III.a Unibertsitatea eta Madrileko Unibertsitate Autonomoa. Deustuko Bilboko taldea, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako 4. mailako Marta Pinedok, Onnexa Lopeteguik eta Irene Palaciosok osatua, finalista aukeratu zuten «Personifique» proposamenagaitik.